

menekotasunaren sinbolotzat erabili izan du batzutan hilotza: "Hilotzaren menekotasuna".

Ik. Hileta-erritoak; Heriotza.

Hīnayāna budismoa

Ibilgailu txikia esan gura du hinayana-k. Budismoaren bi adar handietako lehena, eta seguraski kontrakoek jarritako izena, hots, *mahayana-zaleek ezarria. Ebanjelioan agertzen den "bide estua" kontzeptuarekin badu kideatasunik; izan ere, hinayanaren arabera gutxi dira *nirvana-ra helduko direnak.

Horretarako *monako izan beharra omen dago, edota horien bideari jarraitu. Gizakiaren zoritxarra *irrikatik dator, eta hori suntsitzeko ariketa zorrotzak egin beharra dago: gogoeta etengabekoa, *yoga; jokabide etiko zuzena eskatzen du horrek.

Hinayanaren oinarritzko liburu santua *Tripitaka da, paliz idatzia eta ez sanskritoz.

"Hegoaldeko budismoa" ere deitzen dute hinayana, eta Sri Lanka-n, Thailandia-n, Kambodia-n eta Asiako hego-ekialdean zabaldurik dago.

Ik. Budismoa.

Hinduismoa

4.000 urte dituen tradizio erlijiozko-soziala da; gaurko Indiako gehiengoak jarraitu eta bizi duena. Antzinako *Veda du iturburutzat, eta *brahmanismoaren eboluzio gisa, *Upanisad-etako espekulazio filosofiko-erlijiozkoaren ondorioz eratu zen.


K.a. III. mendetik K.o. VI. mendea arteko epean eratu eta nolabait gorpuztu zen hinduismo klasikoa, errito- eta sineste- eta ohitura-multzoa da, *kaste sistema erlijiozko-sozialaren gainean finkatua.

Hauek dira hinduismoaren liburu santu nagusiak: *Veda(k), *Brahmana(k), *Upanisada(k) eta *Purana(k).

Oinarri metafisikoa du hinduismoak; hasieran *mitoen bidez adierazi zuen hori, eta gero parte batez kontzeptu filosofikotara irauli zuen. Nahiz filosofi eskola edo *daxana ezberdinak egon, funtsean batasuna gordetzen du hinduismoak.

Jainkozko izaki bakarra aitortzen du hinduismoak bizitzazko egia oinarritzotzat: Brahman da hori, izaki absolutu eta inper-tonala, Upanisad-etako orrialde guztiak nolabait betekoa dituen. Izaki bakar hori da *munduaren sorburua.

Jainkozko izaki ezberdinetan agertuko da izaki bakarra edo Brahman. Hasieran horien



arteko hierarkia argirik ez bazegoen ere, gero horietako batari ala besteari emango diote lekurik gorena beste guztien artean: Xiva eta Visnu nabarmentzen dira bereziki. Ik. Xivaismoa; Visnuismoa.

Hinduismoaren ezaugarriak nagusiena egia absolutuaren bilatzea da: horretarako bideak besterik ez omen dira erlijio ezberdinak; ez omen dago, beraz, *dogma edo erlijio jakin bakarrik egiara iristeko. Kontaezinak izan daitezke egia absolutu eta azken-gabera hurbiltzeko bideak: era berean, bide horietan gertatzen diren errebelazioak edo lantzen diren sinesteak oso ugariak eta ezberdinak izan daitezke.

Bere historiako lau mila urteetan funtsezko batasuna gorde du hinduismoak, hindu ortodoxoek uste dutenez; kanpotik begirata, zenbait autorek *vedismoa, hinduismoa eta *brahmanismoa erlijio ezberdintzat jotzen baditu ere.

Nolanahi ere, bere bilakaera eduki du hinduismoak bere etengabeko bizialdian Erlijiozko kezka izpiritual hutsak adimenaren eskakizunei lekua egitean, Veda-ren irakatsiak zehaztera etorri ziren Upanisad-ak edo liburu filosofiko-erlijiozkoak (K.a. VI-VII).

Hinmenoa

mendeetan), batetik, eta Brahmana-k edo errito-liburuak, bestetik, Veda-ko mezuaren eraberrikuntza zekarten, baina ez inola ere aldatzea. Gauza bera esan daiteke geroagoko *darxana edo eskola filosofiko handiei buruz ere.

Aszetentzat Upanisad-ak, *apaizentzat Brahmana-k, jakintsuentzat beste obra filosofikok Veda-ko mezua argitzera etorri bazi-
ren, gauza bera esan daiteke *Purana izene-
koei buruz ere (K.a. IV.-K.o. X. mendetara):
*mitoen bidez Veda-ko mezua erakustera datoz horiek.

Ik. Trimurti; Vedismoa; Upanisad-ak; Veda; Liburu santuak; Brahmanek; Erlijioa eta erlijioak.

Karlo's Fiel
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Hinmenoa

Grezian *monastegiko nagusiari ematen dioten izena.

Hipapantea

Ik. Ama berrien elizara sartzea.

Hiperdulia

Ama Birjinari katolikoek eta ortodoxoek egiten dioten *gurtzapen berezia da, Jainkoaren ama omen delako. Jainkoari zor zaiorenaren (*latriaren) aldean guztiz mugatua da; baina *aingeruei eta beste *santuei zor zaiena baino goragoa.

Ik. Jainkoaren ama; Maria, Ama Birjina.

Hipostasia

Kristau-teologiako hitza da, Hirutasunaren misterioa eta Kristoren izaera adierazteko erabiltzen duena. Norizana edo pertsona esan gura du: hots, Kristo nor "bakarra" dela edo norizan bakarra duela esaten du, giza izaera edo gizatasuna eta jainko-izera edo jainkotasuna batazun osoan ipintzen dituen; era berean, Jainkoa bere jainkotasunean eta jainkozko izaeran bakarra izanik, hiru hipostasi edo jainkozko pertsona edo norizan direla aitortzen du Eliz kontzilioek definituriko fedek. *Jesukristori buruz "batasun hipostatikoa" hitzen bidez adierazten da norizanezko bakartasuna.

Ik. Aita Jaungoikoa; Jainkoaren Semea; Izpiritu Santua; Jesukristo; Hirutasun txit santua; Gizakundea.

Hiria

Erdi Aroko arkitekturan sarritan agertzen da kapitela edo ginbeletan, dinteletan eta tinpanotan zizelaturik hiri harresitua-

ren ziluetan, edergarri gisa eta "zeruko hiriaren" aitzinirudi gisa. San Agustin-ek zintzoen eta santuen "Herria" Jainkoaren hiri edo zeruko hiriaren tankeran irudikatzen dator hiri.

Hiri santua

1. Teologia kristauak *zerua adierazteko erabiltzen duen irudia, Eskritura Santutik bertatik iradokia.

2. Erlijioen historian lurreko halako hiri jakin bati ematen dioten deitura.

*Leku sakratuaren izaera, santutasuna eta ezaugarriak hiri jakin baten barruti osora zabaltzen da nolabait. Hiri santua da, beraz, erlijio bakoitzaren arabera, Jainkoaren bizileku edo jauresleku berezitat hartzen dena, edota erlijioaren eraikitzaileak bertan eginiko mirari, agerkunde edo beselako egite apartekoren batengatik nabarmendua, edota, besterik gabe, erlijioaren zentru nagusizat ezagutzen dutena.

Hiri santutzat ezagutzen dituzte: Jerusalem judaismoak, kristautasunak eta islamismoak, Erroma katolikoek, Mekka eta Medina musulmanek, Benares hinduismoak eta budismoak, Lhasa lamaismoak, Mosku SESBetako Eliza Ortodoxoak.

Ik. Jainkoaren hiria.

Hiri sakratua

Ik. Hiri santua, 2.

Hiri zerutarra

Ik. Jainkoaren hiria.

Hiri-erlijioa

Horrela deitzen du erlijioaren soziologiak, nekazal eta *artzain-erlijioaren aurrez aurre, industrigintza eta hirigintza modernoek, gizarte-aldaketarekin batera, eragin dituzten erlijiozko pentsaera eta egitura berriak. Sekularpena da hiri-erlijioaren ezaugarri nagusia; erlijiozko kideztapena eta ihardunbidea lasaitu egiten dira orduan eta erlijiozko erakundeek beren indar soziala galtzen dute, erlijiozko biziera pertsonalago eta barnekoago bihurtuz.

Ik. Sekularpena; Erlijiozko kideztapena; Erlijiozko ihardunbidea; Nekazal erlijioa.

Hiru

Ik. Hirukoitza.

Hiru aroak

Gizadiaren erlijiozko eboluzioa azaltzeko zenbait autorek egin izan duen historia-
ren partiketa hirukoitza. Herodotok honela